

Gure proposamena

Gure proposamena aterki bat da. Aterki hau ez da beste aterkiak bezela irekitzen, alderantziz irekitzen da, horrela ura ez da lurrera erortzen, ez dituzu zure eskuak bustitzen. Aterkia itxi egiten denean, bustita dagoen zatia barrualdean gelditzen da. Kirtenak borobil forma dauka, horrela eskua sartu daiteke kirtenan zehar eta eskuak poltsikotan egonda, aterkia ondo mantentzen da eta ez zara bustitzen.



Argazkian ikusten denez, aterkia hiru fase hauetan azaldu daiteke. Lehenengoa, aterkia itxita dagoenean gertatzen da. Itxita dagoenean, ikusi daiteke urdinez dagoen zatia, ez dela bustitzen. Bigarren fasean, aterkia irekitzen dago eta busti egiten dena beltza dela ikusten da. Azkeneko fasean aterkia guztiz irekia dagoela ikus daiteke.